

Euskararen eguna ospatu dute IDEOn

2017/12/05

Abenduaren 3an izan zen Euskararen nazioarteko eguna, eta ostiralean elurra dela eta Arrasaten ospakizunik gabe geratu baziren ere, atzo IDEO-ko ikasleek Euskararen eguna ospatzeko tartearen zuten.

Klaseak moztu ziren 11:00-13:30 artean eta ikasleen arteko herri kirolen txapelketatxoak antolatu zuten bertan; sokatira, lokotx biltzea, zaku lasterketak eta zapiaren jolasa. Maila ezberdinetako 9 taldek hartu zuten parte, eta irabazleek gaztai bana eraman zuten sarizat.

Eguraldiagatik, ekintzak barruan egin behar ziren, baina giro oso polita sortu zen ikasleen artean. Amaitzeko, guztientzako lunch-a egon zen, Euskararen egunari amaiera borobila emateko.

